

GIZARTE ZERBITZUAK LANDA INGURUNEAN

1997ko abenduaren hamaika eta hamabian Donostian, «Gizarte Zerbitzuak Landa Ingurunean» lan jardunaldietan egindako lanaren eta erreflexioen bilduma da artikulu hau. Jardunaldi hauek Lan Sozialerako Unibertsitate Eskolan ospatu ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte-kintza sailaren babespean.

Jardunaldi hauetan jorratutako helburu nagusiak honako bi hauek izan dira: akzio sozialean lan egiten duten profesionalen artean gogoetarako eta lanerako gunea sortzea, landa ingurune eta hiri inguruneen artean dauden desberdintasunak erkatuz; eta landa inguruneke zerbitzu sozialen hobekuntza eta aldaketarako baliogarria izan daitekeen proposamen txostena idaztea.

Gipuzkoak dituen 88 udaletatik, erdiak bi mila biztanle baino gutxiago dituzte, eta hauetatik hamazazpi, bostehun biztanletik beherakoak dira; datu hauek kontuan izanik, azpimarratzekoa da lurralde honetan landa inguruak duen garrantzia.

Gizarte Zerbitzuen helburu nagusia gizarte beharrei erantzutea dela kontuan izanik, beharrezkoa ikusi da landa inguruneari buruzko azterketa sakona egitea, behar eta berezitasunen aurrean erantzun egoiak eta egokituak izan ditzagun.

Esan beharra dago bai hiri ingurunean bai landa ingurunean azaltzen diren behar orokorren sustraiak berdina direla, nahiz eta errealitatearen ezaugarri desberdinen eraginez bereizitasun ugari azaldu.

Landa inguruneke errealitatean, dispertsioa, herri txikiak, ekonomia mixtoa,

biztanleen zahartasuna, hiru eta lau belu-naldi elkarrekin bizi diren baserriak, emakumeen lan hirukoitza (etxea, baserria eta gaixo eta ezinduen zainketa), ohitura eta mentalitate desberdinak dira nagusi.

Desberdintasun hauen ondorioz, erabili beharreko baliabide eta lan motek be-reziak behar dute izan gizarte zerbitzuak modu egokian eskaini ahal izateko.

Gizarte laguntzailearen lana landa ingurunean harreman estu eta zuzenetan oinarritzen da batez ere eta erabili beharreko lan estrategiak desberdinak dira landa edo hiri ingurunean; azpimarratzekoak dira erabiltzen diren era desberdinak bai informazioa zabaltzeko, bai zenbait zerbitzuen erabilpena bultzatzeko (beste hurbileko profesionalen bidez, lan komunitarioa bultzatuz, e.a.) eta zerbitzuek duten funtzioen aniztasuna eta malgutasuna.

Jarraian Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lau programen azterketa eginez landa inguruneari egokitzeko proposamen eta alternatiba zehatzak azalduko dira. Jasotako azterketa eta proposamen hauek, jardunaldietan egindako lanaren arabera osatu dira.

1. INFORMAZIO, BALORAZIO ETA AHOLKU PROGRAMA

Landa inguruko ezaugarriak kontuan baditugu, adierazi beharra dago landa inguruko eskaera gehienak ez direla zuzenean egiten, hau da, beste erakunde edo pertsonen bidez iristen direla (medikuak, apaizak, maixuak, auzokoak, senideak...). Ondorioz koordinazio handiagoa behar da

beste profesionalekin, eta honek inplikazio gehiago eskatzen du gizarte langilearen eguneroko jardueran. Bestalde, gizarte zerbitzuei buruzko informazioa hedatzeko aukeran dauden bide guztiak erabili behar dira, nekazaritza arloan erlazioa daukaten erakunde, pertsona eta elkarteekin erlazioak sakonduz (sendagileak, apaizak, nekazal kamara, e.a.).

Lan komunitarioaren garrantzia azpimarratzen da inguru honetan. Lan komunitarioan beharrezkoa da biztanlegoa, herrialdea, ingurunea, komunitatea ezagutzea eta baliabideak ezagutzeaz gain berauek erabiltzea. Ildo honetatik abiatuz funtsezkoak diren prebentzio, integrazio, partaidetza eta osotasun printzipioetan oinarrituz lan egingo da eta komunitateko erlazio pertsonalen sareak eta gizarte kohesioak izango dira nagusi.

Pobreziaziari dagokionez, aipatu beharra dugu landa ingurunean ematen den pobrezia ezin dela neurtu hiriguneko pobrezia neurtzeko erabiltzen den baremo berekin; zeharo ezberdinak diren inguruaz ari baikara, eta batean eta bestean ematen diren elementuak desberdinak dira. Sarritan, gertatzen dena da, Gizarte Zerbitzuetan erabiltzen diren baremo ekonomikoak ez direla landa inguruko egoera berezi-tara egokitzen; adibidez, baserri batek oinarrituz konponketak behar dituenean (egoera sozial ezberdinengatik baserriaren egoera oso txarra denean: komunaren falta, teilatua oso egoera txarrean, e.a.) diru inbertsio dexentea behar izaten da eta larrialdiko dirulaguntzak ez dira egokitzen. Horregatik behar beharrezkoa ikusten da beste sail edo erakundeen partaidetza (etxebizitza saila, nekazaritza saila, edo programa bereziak: «Plan estrategico Rural Vasco» delakoa, 5B plana...).

Beraz, ezinbestekoa da Departamendu desberdinen arteko lankidetzak. Gaur egun, sail bakoitzak lana bere aldetik egiten du, elkarren arteko informazio kanalak landu gabe daudelarik. Arazo honi aurre egiteko profesionalen arteko eztabaida taldeak sortzea ezinbestekoa da, sektorizazio arazo horiek gainditzeko.

2. FAMILIA ETA ELKARBIZITZARAKO PROGRAMA

2.1. Etxez etxeko laguntza

Etxez etxeko zerbitzuak landa ingurunean betetzen duen funtzioari dagokionez, hiri ingurunean betetzen duenaren berbera dela esan dezakegu, hau da, pertso-

na ahal den neurrian bere etxean eta ingurunean mantentzea.

Aipatu beharra dago, Zerbitzu Sozialen Sistemari honako prestazio hau dugula ezagun eta hedatuenetarikoa. Zerbitzu honen onarpena gehitzen doa eta menpekotasun egoeretan, kasu gehienetan behintzat nahiago izaten da etxez etxeko laguntza zerbitzua beste aukerak baino.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar landa ingurunean bizi den jendeari buruz ari gara eta makina bat egoeratan etxez etxeko laguntzaren beharrean egonik ere, ez dutela zerbitzu honen eskaera egiten; beraz, derrigorrezkoa izaten da zerbitzua erabil dezaketenekin eta beren familiarrekoe-kin aldez aurreko kontzientziatze lan sozial bat egitea, kanpotik datozen aurreiritziak ezabatu ahal izateko.

Garrantzitsua eta kasu batzuetan behar-beharrezkoa izaten da, osasun sistemarekin koordinazioan egotea, etxean osasun eta gizarte atentzio on bat eman ahal izateko. Gizarte laguntzaile eta medikuaren arteko erlazio eta koordinazio profesionalakfamiliarentzako babes handiagoa suposatuko luke alde batetik; eta bestetik, profesionalen irizpideak bateratzeaz gain, sortzen diren zailtasunak konpartitu eta lanerako alternatiba proposatzeko aukera emango luke, beti ere landa ingurune-ko errealitatea kontuan edukiz.

Araudiari dagokionez, etxez etxeko zerbitzuaren Udal araudiek behar egoerei erantzun ahal izateko malguak beharko lukete izan. Bakardadea, isolamendu egoerak, gizarte baliabideetara heldu ezina, bai ekipamendu ezagatik, baita garraiabide defizitarenengatik ere, eguneroko arazoak dira landa ingurunean, eta hauek kontuan izanik Udal araudiek era ezberdinean eta malgututasun handiagoarekin kontsideratu beharko lituzkete honako aspektuak:

- Zerbitzuaren intentsitatea. Ezin da mugatu zerbitzua sistematikoki bi edo hiru ordutara familiaren laguntza minimoa denean eta beste gizarte baliabideekin kontaktzen ez denean. Adibidez: Egune-ko Zentrua edo antzekorik ez dagoenean.
- Zerbitzu erabiltzailearen aportazio ekonomikoa, etxerako laguntzarako den edo laguntza pertsonalarentzat den kontuan hartuz. Azken hauetan kome-nigarria ikusten da erabiltzailearen ingresu eta bestelako bide ekonomikoak bakarrik kontuan edukitzea.

Era berean ez dugu ahaztu behar landa inguruko famili eredua hedatua dela eta

askotan zaharrak etxean lagundu eta mantentzeko ahalegin handia egiten dutela. Beraz, zerbitzu erabiltzailearen oportazioa zehazteko familia unitate eta belau-naldi ezberdinen diru sarrerak kontuan edukitzea familia hauen kalterako doa.

Profesionalen kontratazioari dagokionez, hau da, etxeko laguntzaileen kontratazioari dagokionez, landa ingurunean mota ezberdinak eman daitezke: Udaletxeak eginiko kontratazio zuzena, enpresen bidez kontraturiko zerbitzuak eta familiak Administrazioetik jasotzen duen subentzio edo dirulaguntzak beraiek zuzenean etxez etxeko laguntzailea ordain dezaten. Azkeneko sistema hau, gehiengotan, ahula eta ezegokia ikusten da zerbitzu on bat emateko garaian, laguntzailearen egoera prekarioa kontsideratzen delako, funtzioak ondo zehazten ez direlako, eta zerbitzuaren jarraipen ona egiten ez delako.

Lehenengo bi motak egokiak kontsideratzen direlarik, zenbait kasutan Udaletxeak egindako kontratazio zuzena derrigorrezkoa da, landa ingurunean etxez etxeko zerbitzua ondo eta prezio konpetitiboetan emango duen enpresarik ez dagoelako, edo landa ingurua ezagutzen duen langilerik ez dutelako edo ingurune honetan lan egitera motibatuta dagoen pertsonala zailtasunez aurkitzen delako edota auto propiorik ez izateaz gain gastuak gehitzen direlako, etxe edo baserri batetik bestera dagoen dispertsioagatik.

Perfil profesionalari dagokionez, kalitatezko zerbitzu bat eman nahi ezker formazio berezia, euskararen erabilera, baserriko ohituren eta usadioen ezagupena, inguru eta jendearekiko erlazioa, behar-beharrezkoak kontsideratzen dira.

Zerbitzuaren finantziazio irizpideei dagokionez, azpimarratu behar da Gizarte-kintzatik erabiltzen diren irizpideekin herrien artean ezberdintasun handiak sortzen direla, 2.000 biztanle baino gutxiagoko Udal guztiak berdina kontsideratzen direlako. Baina ez da berdina 100 biztanle dituen herria eta 1.800 biztanleko herria. Zerbitzuaren finantziazioa, sortutako kostea eta atenditutako kasuen kopurua kontuan izan beharko litzukete eta zerbitzuaren finantziazioan erkide diren udaletxeak ekonomikoki mesedetu. Kuota finkoa duen sistemak herri desberdinetako herri-tarren artean baztertze eta desorekak sortzen ditu.

Aurreikusten den bezala, etorkizunean Udaletxeetako finantziazioak Foru Aldunditikakoa behar badu izan eta biztanlegoa-

ren zenbatekoa bakarrik hartuko badute irizpide gisa, landa ingurunean herrietako zenbatekoa negoziatu beharko litzateke beste adierazgarri batzuk kontuan izanik, biztanlegoaren zahartasuna, dispertsioa, e.a.

2.2. Babestutako etxeak

Babestutako etxeak atentzio eta ostatu alternatiba eran oso baliogarriak dira, bai hiri ingurunean, bai landa ingurunean. Gizarte erabilerarako ekipamendua den neurrian eta familia edota pertsonak dituzten beharrei era normalizatu batean erantzuteko gai diren neurrian, oso dira babestutako etxeak aukera interesgarri.

Landa ingurunean baliabide honen ezaugarriek honakoak beharko lukete izan: balioanitzekoak, malguak bere erabileran (ez bakarrik biztanlegoaren zenbatekoaren arabera) eta ematen diren gizarte beharrei egokituak.

Adibide bezala adieraz dezakegu, honako zerbitzu bat momentu jakin batean familiarik eta etxebizitzarik ez duten baliotzako pertsonentzako atentzio eta ostatu izan daitekeela, etxez etxeko laguntza minimo batekin. Era berean eguneko zerbitzu izan daiteke dependentzia handiagoa duten pertsonentzat eta laguntza denbora luzeagoan behar dutenentzat. Era honetan familiak ere etxez etxeko zerbitzuak eskain dezakeenarenean baino denbora luzeagoan egongo lirateke aske, beraien eginbehar eta lanak egin ahal izateko. Beste momentu jakin batean, berriz, jangela bezala balio dezake, pertsona helduentzat edota beharra duenentzat.

Ekipamenduaren erabilera momentuan dagoen beharrak definituko du, beti ere talde txiki eta heterogeneo bat dela kontuan izanik.

Antolatzen diren proiektu hauek lokalak edo udal mugakideak izan daitezke, beti ere kilometro gehitxo gelditzen ez bada tartean. Zenbait kasutan gertatzen baita eskualdeko baliabideak (zahar egoitzako jangela, babestutako etxea, eguneko zentroa) eskuraezinak izatea garraio eza-gatik. Kasu hauetan komenigarria litzateke, eta ez horregatik garestiagoa, zerbitzua herrian bertan edo ondoko herriren batean ematea. Honek ez du zertan ikaragarriko inbertsioa izan behar, aurreginitiko ekipamenduak erabil baitaitezke.

Zerbitzuen kudeaketak ez luke Zerbitzu Sozial Sistematik bakarrik etorri beharko, nekazaritza departamendutik edota Euskal

Gobernuak landa ingurunerako bultzatzen dituen programetatik ere etorri beharko luke. Honek Departamendu eta instituzio ezberdinen arteko koordinazioa eskatuko luke Gizartekintzaren bidez kanalizatuz.

2.3. Harrera familia

Harrera familia zerbitzua ethez etheko laguntza eta egoitzen artekoa izanik egokia dela kontsideratzen da, batipat harrera berriak direnean. Aldiz, harrerak lehendik datozenean, hau da, harrera zaharretan (morroiak, neskameak, adoptatutako seme-alabak...) familiari ematen zaion dirulaguntza hau erlazioetan ematen den interferentzia bezala uler daiteke. Erlazioak onak badira, familiarteko beste bat izango da eta baserri inguruan beti zereginen bat dagoenez bere funtzioak mantenduko ditu familian lagunduz eta bertan lan eginaz, sasoiari badago behintzat.

Gaixotasun edota ezintasun kasuetan, kasu bakoitza baloratu beharko litzateke, eta zehaztu «babestuak» dituen baliabideak ez ote liratekeen nahikoak.

Zerbitzu honetan gertuko jarraipena behar-beharrezkoa kontsideratzen da, pertsonen arteko erlazioak, familia eta pertsona bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz.

Bestalde, harrera familia zerbitzua gaizki joan ezkerro, esan beharra dago araudiak ez duela adierazten norik edo nortzuk egin behar duten zaharrentzako jarraipena eta nortzuk duten erantzukizuna.

2.4. Egoitzak

Baliabide hau pertsonak bere etxean edo giroan mantentzea ezinezkoa denean erabiltzen da, autonomia gutxi edo oso gutxi daukaten pertsonen kasuan. Azken baliabide bezala erabiltzen da. Egoitzetara bideratzen diren pertsonak ahal den neurrian bailaran edo herritik gertu mantentzea oso garrantzitsutzat jotzen da. Zenbait kasutan hau lortzea zaila izaten da bailaran egon daitekeen plaza faltagatik.

Arau aldetik hutsune handiak ikusten dira zenbait kasutan —zaharra arrazoi batetik edo besteagatik urte askotan egon den udalerrira utzi eta beste batera joan behar izan duenean eta ondoren egoitzaren beharra izan, adibidez—erantzukizuna zein Udalerrirera den argi ez dagoelako.

Bestalde, azpimarratu beharra dago asistituentzako egoitzen beharra gaur

egungo gizartean gehitzen doala, honek gastuen gehiketa garrantzitsu bat suposatzen duelarik. Gainera, egoitzetarako Foru Aldunditik datozen diru laguntzak ez dira gehitzen, beraz, gai honetan desoreka handia sortzen da, alde batetik gastuen gehiketa eta bestetik dirulaguntzen gutxitzea ematen delako.

3. BAZTERKETARI AURRE EGITEKO PROGRAMA

Landa ingurunean ematen den sakanaketa, dispertsioa eta ezaugarriak kontuan izanik programa honetatik ematen diren ekintza eta jarduerak zabaltzea ez da erraza izaten. Bestalde, populazio urriagatik ezinezkoa izaten da biztanlego kategorien arabera jarduerak eta ekintzak antolatzea. Baina, aktibitate eta jarduera ezberdinak talde heterogeneoari eskaini ezkerro, erlazio sare naturalak eta gizarte kohesioa indartzeaz gain, herritarren partaidetza eta motibazioa bultzatzen da herritarrek protagonista bihurtzen direlarik.

Era honetako planteamenduarekin etekin ekonomikoa eta sozialak lortzeaz gain sektORIZAZIO eta bazterkeria eragozten da; gainera, oso positibotzat jotzen da gazteak adineko jendearekin ekintzetan parte hartzea, beraien harremanak eta identitatea areagotu eta indartzen baitira.

Gizartekintzatik diseinatzen diren prebentzio programak ez dira erabat landa inguruneko herritarren beharretara egokitzen. Termak, ibilaldi kulturalak, Eguberrietako programak... gehienetan, beti ez esatearren, oso erabilera eskasa dute landa ingurunean. Beraz, herritarren beharrei erantzuteko beste aisialdirako eta dinamizatorako ekintza mota egokiagoak antolatu beharko lirateke. Adibidez: egun pasak, helduentzako soinketa taldeak, helduen heziketarako taldeak, interesaren araberrako hitzaldiak...

Bestalde, finantziatori dagokionez, malgutasuna eskatzen da, ekintza ezberdinak helburuen arabera subentzionatuz eta ez aktibitate motaren arabera.

4. GIZARTE LANKIDETZA

Landa gunean ematen den lankidetzaren informala izaten da, egituratu gabea eta naturala. Lankidetzaren programa berezirik ez da egoten, baina elkarrenganako laguntza oso hedatuta dago. Lankidetzaren eta solidaritatearen programen bidez ematea ez da

egokitzen ikusten. Jendeak laguntza nahi duelako ematen du, era espontaneo batean ateratzen da; gainera askotan trukaketa batez ari garela esan dezakegu. Beraz, lankidetzaren era hau indartzearen alde azaltzen dira landa inguruko profesional guztiak modu hau kontsideratzen baita erarik naturalena. Lankidetzaren egituratzen saiatu ezkerreko herritarrek elkarlaguntza betebeharrak bat balitz bezala bizi dezakete eta elkarlaguntza natural eta espontaneoak galtzeko arriskua eman daiteke zenbaitean.

Laugarren programarekin bukatu aurretik, esan beharra dago auzo lana oraindik zenbait herri txikitik mantentzen dela, baina zorritzarrez indarra galtzen ari denez desagertzeko arriskua ikusten dela.

5. PROPOSAMENAK ETA ZAILTASUNAK

1. Baliabideen urritasun edota mugen aurrean: zerbitzu eta programek bat egitea litzateke proposamena, komarkalizazioa bultzatuz. Baliabideak sortzeko eta bultzatzeko garaian eskualde guztia, herri txikiak barne, eduki beharko lirateke kontuan.
2. Proiektuen finantziakzioa lortzeko zailtasunen aurrean: gizarte zerbitzuek landa munduko beste departamentuen plan eta programen berri edukitzea komenigarria litzateke (adibidez: 5B helburua. Euskal Herriko Landarako Plan estrategikoa, solidaritate mahaia, e.a.). Honetarako ofizialak diren komunikaziorako kanalak irekitzea behar-beharrezkoa ikusten da.
3. Dispertsio, isolamendu eta garraio sare eskasaren aurrean: landa ingurunera egokitzen diren programa eta neurriak sortzea erabiltzaileek behar dituzten zerbitzuetara hel daitezen. Honetarako Gizartekintza eta garraio, garapen koordinazioa eta hauen inplikazioa derigorrezkotzat jotzen da.
4. Gizartekintzatik populaziorako diseinatzeko diren prebentzio programak ez dira erabat landa ingurunearen beharretara egokitzen. Adibidez: Zirkuitu Sozio-Kulturalak, Gabonetako Programak, Bainuetxeak, Termak... Zailtasun honen aurrean egokia litzateke Oinarritzko

Gizarte Zerbitzuetatik antolatzen diren dinamizazio eta aisialdirako aktibitateak kontuan edukitzea; aktibitateak helburuen arabera eta ez aktibitate motaren arabera subentzionatzea; ingurune guztiak berdinez ez direnez eta landa inguruneaz ari garenez inguru honetara egokitutako aktibitateak beharko lukete izan.

5. Diru laguntzak lortzeko aplikatzen diren diru sarreren baremoak ez dira erabat egokiak, landa ingurunean aurkitzen dugun familia mota oraindik hedatua delako. Zailtasun honen aurrean, landa ingurunearen errealitatea kontuan edukitzeaz gain, malgutasuna eskatzen da baremoa aplikatzeko garaian eta hiri ingurunean erabiltzen direnen ezberdintasunak aplikatzea.
6. Landa ingurunearen herrialdeetan populazio urriagatik, ezinezkoa izaten da populazio kategorien arabera, zerbitzu espezifikokoak sortu eta eskaintzea. Beraz, aktibitate soziokomunitarioak kategoriatik guztiei zabaltzea litzateke egokiena, zaharren talderako edo emakumeen talderako bakarrik aktibitateak antolatuz. Aktibitate ezberdinak talde edo kategoriatan desberdinean zabaltzea ezkerreko, gainera, erlazio sare naturalak eta gizarte kohesioa indartzen dira, ekonomikoki errentagarriagoak izateaz gain.
7. Gizarte laguntzaileen funtzioei buruzko ezjakitearen aurrean: gizarte zerbitzuei buruzko informazioa zabaltzea, hemen ere eman daitezkeen prestazio eta gizarte laguntzaileen funtzioen berri emanaz. Honetarako komunikazio bideak irekitzea egokia litzateke sindikatu, elkarte eta landa ingurunean lan egiten duten instituzio desberdinekin.
8. Bilakaera demografikoa dakartzan arazoak ugariak dira: zahartzaro tasan gehitzea, migrazioa landa inguruneetik hiri ingurunera, herrietan eskolak mantentzeko zailtasunak... Honek guztiak planteamendu politiko berriak eskatzen ditu landa inguruneari eutsi nahi badiogu.

LUISA AGIRRETXE
IZASKUN SERNA
MARIJOSE ARRIZABALAGA
MIRIAM GOIKOETXEA
ELENA RIKONDO

SERVICIOS SOCIALES EN EL AMBITO RURAL

El presente informe sintetiza el trabajo y las reflexiones realizadas en las «Jornadas de Trabajo: Servicios Sociales Rurales» organizadas en Donostia el 11 y 12 de diciembre de 1997. Estas jornadas de trabajo se celebraron en la Escuela Universitaria de Trabajo Social financiadas por el Departamento de Servicios Sociales —GIZARTEKINTZA— de la Diputación Foral de Guipúzcoa.

En estas jornadas se ha pretendido trabajar sobre dos objetivos principales: crear un espacio de trabajo y reflexión entre los profesionales de la acción social, pudiendo contrastar las diferencias existentes entre el ámbito rural y urbano; y elaborar un informe de proposiciones y alternativas con la finalidad de que se dé un cambio y mejora de los Servicios Sociales en el ámbito rural.

En Guipúzcoa contamos con 88 municipios, de estos la mitad con menos de dos mil habitantes y de estos últimos el 50 % con menos de quinientos. A la vista de estos datos no podemos dejar de subrayar la importancia que tiene el ámbito rural en nuestra realidad.

Teniendo en cuenta que el objetivo principal de los Servicios Sociales es responder a las necesidades sociales, consideramos que es una necesidad prioritaria estudiar la realidad rural para poder responder de manera adecuada a sus necesidades.

Hemos de señalar que el origen de las necesidades es el mismo en el ámbito rural y en el urbano, aunque se dan muchas

particularidades, debido a la influencia de las diferentes características de cada realidad social.

Como características más importantes y diferenciadoras del ámbito rural podemos señalar las siguientes: dispersión, pequeños pueblos, economía mixta, envejecimiento de la población, familias extensas donde conviven tres y cuatro generaciones, triplicidad en el trabajo de la mujer (la casa, las labores agrícolas, a menudo algún enfermo o minusválido que cuidar), diferentes costumbres y mentalidad...

Debido a estas diferencias es necesario que el tipo de trabajo y los recursos sean los adecuados a esta realidad siempre que se quiera ofrecer unos servicios sociales apropiados.

El trabajador social en el ámbito rural debe utilizar diferentes estrategias de trabajo respecto a las de ámbito urbano, ya que éstas en el ámbito rural se basan en un tipo de relación más estrecha y directa que en el urbano. Son de subrayar los diferentes modos y estrategias que se utilizan tanto para divulgar la información como para fomentar la utilización de algún servicio (fomentando el trabajo comunitario, a través de otros profesionales...). La función de los Servicios debe ser aún más polivalente y flexible.

A continuación, y tras el análisis de los cuatro programas de servicios sociales de base, se presentan las alternativas y proposiciones concretas y adecuadas a la realidad rural.

1. PROGRAMA DE INFORMACION, ORIENTACION Y VALORACION

En la mayoría de los casos la demanda en el ámbito rural no se da directamente, sino mediante alguna otra institución o persona (el médico, el cura, el maestro, el vecino, familiares...). Ello requiere una mayor coordinación de los profesionales y una mayor implicación por parte del trabajador social en la labor de todos los días. Por otro lado, para poder difundir cualquier información sobre los servicios sociales es necesario utilizar todos los medios y posibilidades, instituciones relacionadas con el mundo rural, entablando relaciones tanto con personas como con instituciones (cámara agraria, el médico, etc.).

Resulta necesario subrayar la importancia del trabajo comunitario en el ámbito rural. En el trabajo comunitario es importante, además de conocer la comunidad, el entorno, la población y los recursos de la comunidad, la utilización de estos últimos. El trabajo comunitario se fundamenta en los principios de integración, globalidad, participación y prevención, además de subrayar la cohesión social y red de relaciones personales de la comunidad tan necesarias para el logro de objetivos comunes y armonía social.

En referencia a la pobreza del ámbito rural, se constata que no es posible medirla con el mismo baremo utilizado en el ámbito urbano, ya que se trata de un entorno realmente diferente. A menudo ocurre que los baremos económicos de los Servicios Sociales no se adecúan a la realidad rural. Podemos ver un ejemplo claro en el caso de un caserío que tenga que hacer unos arreglos básicos (falta de baño, deficiente condición del tejado); esto supone una fuerte inversión de dinero y las ayudas de emergencia no se adecúan a esta urgencia. Debido a ello, se considera necesaria la participación y relación con otras instituciones tales como el Departamento de Vivienda, de Agricultura, programas o planes estratégicos rurales vascos, el plan 5B...

Por tanto, se considera imprescindible e importante, siempre que se apueste por un trabajo integrado y global, la interrelación entre los diferentes departamentos. Hoy en día, no se cuenta con esos canales de información interdepartamentales, dificultando la superación de los problemas derivados de la sectorización. Ante esta situación se pide la formación de grupos de discusión de profesionales.

2. PROGRAMA DE FAMILIA Y CONVIVENCIA

2.1. Servicio de ayuda a domicilio

Sobre la función que ejerce el Servicio Domiciliario en el medio rural, puede decirse que es la misma que en el medio urbano, es decir, mantener a la persona en la medida de lo posible en el domicilio y en su entorno habitual.

El Servicio de ayuda a domicilio es la más conocida y extendida entre las prestaciones de Servicios Sociales. La aceptación del Servicio va en aumento; en situaciones de dependencia, se prefiere en la mayoría de los casos la ayuda en el domicilio ante la opción de otras alternativas fuera del mismo.

Ante situaciones de clara necesidad de apoyo en el domicilio con inexistencia de demanda del Servicio y resistencia al mismo, se requiere un trabajo social previo de concienciación con los potenciales usuarios, y en su caso con sus familias, tratando de eliminar prejuicios sobre recibir ayudas del exterior.

Es deseable, y en algunos casos resulta imprescindible, la coordinación con el sistema sanitario, para una eficaz atención socio-sanitaria en el hogar; una relación profesional fluida entre médico rural y asistente social ofrecerá mayor soporte a las familias, aunará criterios profesionales y por otro lado se compartirán las dificultades y se propondrán alternativas de trabajo teniendo en cuenta la realidad del medio rural.

Se considera que los reglamentos y normativas municipales del Servicio Domiciliario deben permitir flexibilidad, respondiendo así a las situaciones de necesidad. Debido a las situaciones de soledad, aislamiento, imposibilidad de acceso a otros recursos sociales, bien por falta de equipamientos, red de transporte deficitaria, etc., las normativas municipales deben contemplar de modo diferente y más flexible aspectos tales como:

- Intensidad, no limitando sistemáticamente a 2 ó 3 horas el servicio en los casos en que se cuente con mínimo apoyo familiar y se carezca de otros recursos sociales accesibles, p.e. Servicio o Centro de Día.
- Aportación económica del usuario, según se trate de ayuda doméstica y/o personal. En los casos de atención personal se cree procedente contabilizar

únicamente los ingresos y medios económicos del beneficiario.

Asimismo, para determinar la aportación del usuario, el tomar en consideración los ingresos de la unidad convivencial, ampliándose ésta a varias generaciones y ramas colaterales, lejos de favorecer a estas familias que se esfuerzan por ayudar a sus ancianos, manteniéndoles en su entorno físico y social, supone un tratamiento más gravoso que el de aquellas familias que se desentienden de los mismos.

Respecto a los tipos de contratación de las Auxiliares Domiciliarias, coexisten en el medio rural la contratación directa desde el Ayuntamiento, prestaciones de Servicios por empresas, y en menor medida, subvenciones a las familias, para que remuneren directamente a las Auxiliares. Esta última fórmula, no se considera correcta para prestar un buen Servicio, debido a la precariedad en la situación laboral de las Auxiliares, a la no delimitación de las funciones de las partes implicadas, y a que no existe el seguimiento correcto que exige el Servicio.

En algún caso, la contratación directa del Ayuntamiento viene determinada por la inexistencia de empresas cualificadas que puedan prestar el Servicio a precios competitivos en el medio rural, por carecer del personal idóneo conector del medio o por falta de personal motivado a trabajar en el ámbito rural o por no disponer de vehículo propio además del coste añadido que supone debido a la dispersión entre domicilios.

No obstante, opinión favorable merece la contratación directa a pesar del mayor costo, por la calidad del Servicio y el seguimiento.

Del perfil profesional, sí se considera necesaria una formación específica, como garantía de calidad del Servicio, pero es imprescindible el conocimiento del medio donde se va a desenvolver su trabajo, dominio del euskara, del funcionamiento del caserío y de las costumbres, relación con el entorno y sus gentes, etc.

En cuanto a criterios de financiación del servicio por parte de Gizartekintza, considerando a todos los municipios menores de 2.000 habitantes como si tuvieran esa población, puede decirse que genera diferencias entre los mismos, pues se le financia igual al de 100 habitantes que al de 1.800 habitantes, cuando sus indicadores de necesidad son distintos.

Se debería tener en cuenta el número de casos atendidos y coste generados, y favorecer económicamente a los Ayuntamientos que coparticipan en la financiación del Servicio. El sistema de cuota fija crea desequilibrios y exclusión entre ciudadanos de diferentes pueblos.

Si en un futuro próximo y tal como se prevee, la financiación de los Ayuntamientos será a través de los Fondos Forales y con criterios de número de habitantes exclusivamente, deberán negociarse las cuantías en el caso de los pueblos rurales pequeños, teniendo en cuenta otros indicadores, tales como la dispersión, envejecimiento poblacional, etc.

2.2. Viviendas tuteladas

Como concepto de alternativa de alojamiento y atención, es válido tanto en el medio urbano como en el medio rural. Es una alternativa interesante en los casos en que se puede contar con un equipamiento para uso social, pudiendo atender de una manera normalizada a personas y/o familias que lo precisen.

La característica principal de un recurso de este tipo en el medio rural debe ser la polivalencia y flexibilidad en el uso y la adaptación a las necesidades sociales presentadas.

Por ejemplo, el equipamiento que en un determinado momento sirva de lugar de alojamiento y atención a personas válidas sin vivienda ni apoyo familiar que requieren un mínimo apoyo domiciliario, puede servir paralelamente como Servicio Diurno a personas de mayor dependencia que requieran de mayor tiempo de atención y supervisión por una persona cuidadora, liberando a sus familias durante más horas que las que les puede ofrecer un Servicio Domiciliario, y que de este modo puedan atender mejor sus quehaceres y trabajos. Asimismo, puede ofrecerse como comedor colectivo a personas mayores que lo deseen.

El uso vendrá definido por las necesidades que se presenten en ese momento, teniendo en cuenta que es un colectivo reducido y heterogéneo.

Estos proyectos podrán ser locales o abarcando varios municipios colindantes, de parecidas características, si la distancia kilométrica lo permite.

En ocasiones, el acceso a los recursos comarcales de la Red, cuando existen, por

ejemplo. Centro de Día, vivienda tutelada, comedor del Hogar de Jubilado, no resultan accesibles por la falta de transporte, y económicamente no resultan más baratos que si se prestaran en el mismo pueblo o radio cercano.

Pueden aprovecharse equipamientos preexistentes, no requiriendo grandes inversiones para su habilitación, en términos de rentabilidad social.

La cofinanciación debe gestionarse, no sólo desde Servicios Sociales, sino también desde otros Departamentos como Agricultura, y de programas para el mundo rural de otros estamentos como el Gobierno Vasco. Requiere la coordinación interinstitucional entre dichos departamentos e instancias, siendo canalizada a través de Gizartekintza, que valorará técnicamente la idoneidad de los Proyectos presentados, ajustando la oferta y demanda de Servicios Sociales, planificando los servicios sociales a nivel Territorial y, en definitiva, respondiendo a las necesidades específicas e inherentes al mundo rural.

2.3. Familias de acogida

Se comenta que la familia de acogida como recurso intermedio entre el servicio domiciliario y la residencia, resulta válida en las nuevas acogidas. En cambio, cuando las acogidas son de hecho y vienen de muchos años atrás, como pueden ser los casos de «morrois», «neskames», hijos adoptados, etc., se cuestiona que la concesión de ayudas económicas pueda interpretarse como interferencia en las relaciones de dicha unidad convivencial. Si las relaciones son sanas, ya forma parte de la familia y mantiene sus funciones y sigue colaborando y trabajando para la familia como uno más, si las facultades físicas se lo permiten, la persona en el caserío siempre tiene ocupación y así se acepta.

En el caso de enfermedades invalidantes de incapacidades, habría que valorar cada caso y determinar si los recursos propios del «acogido» no serían suficientes para su atención en el domicilio.

Por otra parte, hemos de señalar los vacíos normativos que se dan en cuanto a quién o quiénes son los responsables de hacer el seguimiento del acogido en aquellos casos donde el servicio de familia de acogida no haya funcionado como se esperaba.

2.4. Residencias

Es el recurso conocido y aceptado tradicionalmente con connotaciones de caridad, casas de misericordia, en atención a personas que no cuentan con apoyo familiar, por no existir estos o por relaciones deterioradas, y por escasa o nula autonomía física y/o psíquica.

Se utiliza como último recurso, y se intenta al menos que la institucionalización sea en la Residencia más cercana y accesible posible, con el fin de que las personas puedan mantener los vínculos con la familia y/o personas del entorno. En ocasiones esto resulta difícil de conseguir por la falta de plazas residenciales en la propia comarca.

En cuanto a la normativa, se ven vacíos importantes, ya que las normas no definen qué municipio o municipios son responsables de prestar este servicio en aquellos casos donde la persona mayor después de vivir durante años en un municipio, por una razón u otra, haya tenido que cambiar de municipio los últimos años.

Se subraya cada vez una mayor necesidad de residencias asistidas, suponiendo un mayor incremento del gasto. A ello hemos de añadirle que no se da un aumento de las subvenciones procedentes de la Diputación Foral destinadas a este tipo de residencias, por tanto esto nos llevará a un desequilibrio, ya que se da un aumento considerable de los gastos pero no se da este aumento en las subvenciones.

3. PROGRAMA DE PREVENCIÓN DE LA MARGINACIÓN E INSERCIÓN SOCIAL

Teniendo en cuenta la dispersión y el aislamiento de la población, no resulta fácil llevar a cabo las actividades que se presentan en este programa. Además, debido a la disminución de la población, resulta dificultoso organizar actividades en base a un grupo homogéneo. Sin embargo, al ofrecer diferentes actividades a un grupo heterogéneo, además de reforzar y fomentar la cohesión social y la red de relaciones naturales, se impulsa la participación y motivación, convirtiéndose la población en protagonista de su realidad.

Con este tipo de planteamientos, además de lograr un beneficio social y económico, se supera la marginación y sectorización. Se subraya como muy positivo el que los jóvenes junto con los adultos o

mayores realicen y participen en las diferentes actividades reforzando de este modo la identidad y las relaciones sociales naturales.

Los programas de prevención diseñados desde GIZARTEKINTZA no se adecúan en su totalidad a las necesidades de la población del ámbito rural. Los programas de Nochebuena, excursiones culturales, termas, etc., generalmente no tienen mucha utilización en el ámbito rural. Por tanto, se subraya la necesidad de organizar actividades de tiempo libre y dinamización más adecuadas a sus necesidades, charlas según su interés, excursiones, grupos de gimnasia para adultos, grupos de formación para adultos...

En cuanto a la financiación, se pide una mayor flexibilidad, subvencionando las diferentes actividades según los objetivos y no según el tipo de actividad.

4. PROGRAMA DE VOLUNTARIADO Y COOPERACION SOCIAL

La cooperación que se da en el ámbito rural no tiene una estructura, es informal y se da de manera natural. Aunque en el ámbito rural no se trabaja sobre un programa concreto, se señala que el intercambio y la ayuda mutua están muy extendidos. Las personas e individuos se ayudan los unos a los otros porque quieren, de manera espontánea. De esta manera, los profesionales del ámbito rural consideran necesario apoyar y fomentar acciones de este tipo, ya que se ve que es la manera más natural. En el caso de que se estructurara o se intentara estructurar la cooperación, la población lo viviría como una obligación y se correría el riesgo de perder esta cooperación natural y espontánea.

Antes de terminar con este cuarto y último programa hemos de subrayar que, aunque en algunos pueblos pequeños se mantiene el «auzo-lan», este está perdiendo su importancia y tiende a desaparecer.

5. DIFICULTADES Y PROPUESTAS

1. Escasez y/o limitación de los recursos: mancomunar servicios y programas, promoviendo y fomentando la comarcalización. A la hora de crear recursos es importante tener en cuenta las necesidades de toda la comarca, la realidad que los rodea e incluso la de los pueblos pequeños.

2. Dificultad para conseguir financiación para los proyectos: acceder desde los Servicios Sociales locales y territoriales a Planes y Programas específicos de otros Departamentos conectados con el mundo rural, tales como Objetivo 5B, Plan Estratégico Rural Vasco, Mesa de Solidaridad, etc. Para ello sería necesario abrir canales de comunicación oficiales y claramente establecidos.
3. Dificultades derivadas de la dispersión, el aislamiento y una red de transporte insuficiente: crear programas o tomar medidas que se adapten a la realidad de manera que los usuarios puedan acceder a los servicios que precisan. No obstante se considera que para ello es necesario que haya una coordinación e implicación de otros departamentos, como el de transporte, agencias de desarrollo comarcales...
4. Los programas preventivos de Servicios Sociales diseñados para toda la población no se ajustan a las necesidades del mundo rural (Termas, Bañerios, Circuitos Socio Culturales, Tarteko, Programas de Navidad). Ante este problema es importante no limitar la subvención al tipo de actividad, sino al objetivo de la misma, y considerar aquellas actividades de ocio y dinamización socio-cultural promovidos desde los Servicios Sociales de Base de carácter preventivo y de inserción financiándolos proporcionalmente.
5. Desventajas con relación al medio urbano, en la aplicación de baremos según ingresos económicos para conseguir ayudas individuales, debido a que se contabilizan los ingresos de toda la familia convivencial y en el ámbito rural todavía se mantiene la familia extensa. Ante esta dificultad, además de tener en cuenta el contexto rural, se pide una mayor flexibilidad a la hora de aplicar el baremo, o la aplicación de diferentes baremos que los utilizados en el ámbito urbano.
6. Población insuficiente para crear y ofrecer servicios específicos por categorías de población, tal como se planifica en el medio urbano: generalizar las actividades socio-comunitarias, no sectorizando en tercera edad, mujer, etc., ya que no es rentable económicamente y evita las relaciones de red natural y la cohesión social.
7. Desconocimiento de las funciones del trabajador social adjudicándole las

funciones que no corresponde. Ante esta dificultad es necesario emplear todos los canales de comunicación a nuestro alcance para difundir la información referente a los Servicios Sociales, y sus prestaciones. Relacionarse con las instituciones relacionadas con el mundo agrario, sindicatos, asociaciones, oficinas comarcales agrarias.

Problemas derivados de la evolución de la población: mayores tasas de envejecimiento, migración hacia los nú-

cleos urbanos, dificultad para mantener escuelas en los pueblos. Todo ello requiere un nuevo planteamiento político específico y dirigido al medio rural, siempre que apoyemos el mantenimiento de dicho medio.

LUISA AGIRRETXE
IZASKUN SERNA
MARIJOSE ARRIZABALAGA
MIRIAM GOIKOETXEA
ELENA RIKONDO